

Goierri tarra

347. zenbakia 2008ko irailak 26

Lagunak

ZALDIBIAKO 'EZ DOK AMAIRU'

ALTAMIRA
JATETXEA



Altamiran
sukaldaritza
maite dugu

Altamirako kirolgunea / Ordizia
T 685 794 755 / altamira@geri.net



berogas

langile elkarte, s.a.l.

Berokuntza, gasa, aire girotua, iturgintza.
Instalazio industrialak eta etxeok, eguzki-energia.
Sukaldeko eta bainuko altzariak, etxetresna elektrikoak.
Aluminiozko eta Poliuretanozko leihoak .

Denda: Pº San Francisco, 10 – 20400 Tolosa
Tel.: 943 653 307
Tel. / Fax: 943 650 520
E-mail: muebles@berogas.com

Bulegoak: Polg. Usabal, pab. 11A – 20400 Tolosa
Tels.: 943 672 620 / 943 675 977
Fax: 943 675 421
E-mail: berogas@berogas.com

www.berogas.com



POLIURETANOZKO LEIHOAK



Medikuntza eta zirugian lizentziatuak:


I. Fdez Ornaburu Dra.
(Medikuntza estetikoan masterra)
A. Ramirez Baigorri Dra.

● GANTZA KIRURGIARIK GABE KENTZEN DUGU
ultrasoinuen bidez

NOBEDA

ULTRASHAPE CONTOUR I Metodoa

- laser depilazioa
- aurpegiaren gaztetzea
- peeling-ak, betetzeak
- toxina botulinikoa: zimurrak
- aurpegi eta gorputzeko mesoterapia
- gizentasuna, zelulitia, masajeak
- azal azpiko terapia: LPG



R.P.S.:32/04

BERTSOTAN



Aitzol Barandiaran

Krisia dela eta ez dela

Nahiz merkatua oinarritzen den diruen irabazian beti ezin da poltsa gizendu horren erritmo bizian. Arau soil ta basati, arau eza izaki urrezko demokrazian ekonomia ez beste dena egon liteke krisian.

Pentsa beharrak asko nekatzen gaituela badakigu horretarako Liga hastea ezinhobe datorkigu. Badijoa kolpetik etorri zen bidetik ta ez du ezer berdindu, asko zeukanak asko dauka ta gutxi zeukanak gutxi du.

Doinua: Iparragirre abila dela.

Goierritarra

HAMABOSTEKARIA

Argitaratzailea:

Goierriko Hedabideak S.L.

Urbialde plaza, 7 - behea

BEASAIN

Posta elektronikoa:

goierritarra@goierrikohitza.info

Telefonoak:

Erredakzioa: 943 16 00 56

Faxa: 943 88 96 12

Publizitatea: 647 319 757

Harpidetzak: 902 820 201

Zuzendaria: Loinaz Agirre

Maketazioa: Mikel Albisu

Inprimaketa: Gertu

ISSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Goierritarrak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Goierritarra

diruz laguntzen duten erakundeak:

Itsasondoko udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

AURKIBIDEA

4. **Kolaborazioa:** Rufino Iraola.
5. **Ingurugiro txokoa:** Natur ibilaldi gidatua.
6. **Euskara txukuntzen:** Denetik XIII.
7. **Erreportajea:** 'Euskaraz bai' Beasain eta Ordizian.
10. **Elkarrizketa:** Lagunak musika taldea.
15. **Garai batean...:** Ohitura Zaharren II. Jaia Ataunen.
18. **Goierritarrak munduan:** Prudencio Oiarbide beasaindar estatubatuarra.
22. **Gazteleku:** Jon Ander Albisu ataundar pilotaria.
24. **Non zer.**
26. **Argazki zaharra.**



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA

Viceconsejería de Política Lingüística



Rufino Iraola Garmendia

**Erretiratu
batek,
obligaziozko
lana salbu,
lehendik egiten
duena egiten
jarraitu
behar du.**

Iratzargailurik gabe bizitzeko plana

Esan didate oso ondo bizitzen dela erretirata: iratzargailurik gabe, obligaziorik ez, denbora sobera, lehen egin ez duzun gauza asko egiteko modua, jan eta paseatu... Bilobarik egurastu beharrik ez duzun bitartean. Laster jakingo dut egia den ala ez. Iruditzen zait balantzaren beste platertxoan gauza asko ipin litezkeela, baina ez naiz horretan hasiko. Gure memoriak gauza desatseginak ahanzteko joera duen bezalaxe, nik, oraingoz, kontzienteki utziko dut hutsik aipatu platertxo.

Beste batzuek esaten didate adin egoia aukeratu behar dela erretiratzeko. Ez omen da komeni erretireta hartzea, Goierri esaten den eran, lanerako "supiziente" zabilzan bitartean. Eta zein da adin on hori? Nik esango nuke erretiroa ere "supiziente" zaudela hartu beharrekoa dela. Bestela ez da erretiroa, baizik eta geratzen zaizun bizitza osorako baja.

Zenbaitek galdetzen dit ea ez ote duan beldurrik etxean geratzeko, hain hiperaktiboa izanik. Hori esan egin didate, nik neuk ez dut inoiz aitortu hiperaktiboa naizenik. Hori bai, esan izan dut psikoterapia egite aldera hasi nintzela idazten, irakurtzen eta nire burua janzen, gaixotasun marrajo bati errazago aurre egingo niolako; eta halaxe izan da. Kultura eta okupazioak indar handia dute zenbait erasoren aurka.

Nik uste baino jende gehiago dago jakinaren ganean. Aurrekoan Larraitzen, lagun batek hala adierazi zidan: "Hara, aurki lagun bat gehiago muserako". Izan ere, orain Larraitz da erretiratu askoren egoitza "ofiziala", eta musa dibertimendu

nagusia. Ez diot gaizki iritzen. Iruditzen zait oso ondo pasatzen dutela jokoak duen *nik irabaziko bik jasoko* xarma horrekin. Baina lagunartea egitea da printzipalena, eta musak inplizituki berekin du hori. Egia da ahal dudan batzuetan Larraitza joaten naizela. Ordea, ez da segurua musari atxikiko natzaionik. Larraitzek bestela ere badu gauzarik asko gozatu nahi izanez gero. Gainera, baliteke Larraitzik urrun samar bizitzea.

Norbaitek esan dit hau ere: "Daukazu sasoiarekin ez nintzateke batere harrituko proiektu berriren bati ekitea". Proiektu berriak ez dira nolana hasten; are nekezago erretiratzeko zarenan. Erretiratu batek, obligaziozko lana salbu, lehendik egiten duena egiten jarraitu behar du. Oso erratuta dago norbaitek uste badu orain arte denborarik izan ez duelako ez duela irakurri eta orain prest dagoela herriko liburutegi osoa irensteko. Gauzak ez dira horrela. Niri, adibidez, bakarren batek gomendatu dit barzetzexo bat ipin dezadan; hori baino plazer handiagorik! *Ahalak ez, ordea, nik hortarakoak; bertze zerbaiteitako nindaukan Jainkoak*. Arrazoi du Xalbadorrek. Ni nola hasiko naiz barzatean? A ze porru-haziak egingo nituzkeen, sekula ez naiz aritu eta. Ez, ez. Ofizioa aurretik ikasi behar da.

Nik uste dut, osasunik baldin badugu, asmatuko dugula bizitzen. Bestalde, kontuak atera beharra dago huts egiten hasten zaigunerako ere. Ikasi beharra dago etxeokentzat zama izan gabe moldatzen, eta bidean datorrenari aurre egiten, ezer baztertu gabe, "auto-eutanasia" barne.

Iñausti
Hartz Klinika
ESTIBALIZ JUAREZ ALDANONDO
602 Zbk. KOLEGIATUA

RADIOGRAFI PANORAMIKO ETA ZEFALOMETRIAK
ODONTOLOGIA OROKORRA: HAUR ETA HELDUAK

JOAN ITURRALDE, 3 BEASAIN
☎ 943 88 46 28



ERREFORMAK

- ✘ Tximini eta ekonomikak
- ✘ Berogailuak
- ✘ Iturgintza
- ✘ Zeramika erakusketa
- ✘ Bainuko altzariak

☎-Faxa: 943 88 95 76 Urdaneta, 41 ORDIZIA

Natur ibilaldi gidatua

Aitzkorri Aratz parke naturala: Otzaurte-Beunde

Nortzuk gara? Landarlane-ko Ingurugiro taldeko kide ausartak.

Norentzat dago zuzendua?: 0-11 urteko umeentzat eta beraien familientzat.

Ibilaldia

2008ko irailaren 28an, igandean, 10:30etan, egurraldiak eusten badio izango da. Euria egingo balu udaberriarako utziko genuke. Otzaurteko ermitaren ondoko aparkalekuan hasiera puntua izango da. 2km-tako ibilaldia. Aldapa batzuk ditu baino erraza eta orgatxo eramateko aukera dago.

Beunde eremuan bukera izango da, han Goierriko Baratzeko produktiak dastatzeko aukera izango dugu. Dena den, ura edo otartekoren bat eramatea, bakoitzaren eskuan uzten dugu.

Helburuak

- Jokuen bitartez Natura ikertu, ezagutu, maitatu, errespetatu eta gozatu.
- Ikusmena, usaimena, entzumena eta ukimenarekin gure inguruaren beste ikus-puntu berezia lortu.
- Naturaren alde jarrera positiboak lortu nahi dugu bi lemekin: "**Natura ezagutu eta maitatu**" eta "**utzi natura dagoen bezala edo hobetu**"; Hau da, zakarrak zakarrontzi egokietara bota edo etxera eraman ekarri ditugun bezalaxe eta han ikusten ditugun zikinkeriaren bat jasotzen ba-



dugu, on egingo diogu naturari eta bertara etortzen garen pertsoneri.

- Familia osoak ekintza polit bat ezagutu eta praktikatzeko aukera.
- Jokuekin "lankideta eta ondo pasatzea bultzatu", norgehiagoka eta lehiaketak alde batera utzita.

Ekintza

- ✓ 'Basoa' hitza, zer ekaritzen dizu burura?
- ✓ Martitzeko biztanle bat naiz, nolakoa da nire lehen topaketa inguru honenkin?
- ✓ Nor bizi da basoan? No-

la?

- ✓ Asmakizunak; ukimenarekin eta usaimenarekin.
 - ✓ Pago bat naiz, nola sentitzen naiz?
 - ✓ Harri bihurtu naiz.
 - ✓ Ipuin bat asmatu ezagutu berri ditugun elementuekin.
 - ✓ Altxor bat izkutatu dezagun.
 - ✓ Flora eta faunaren ezagutza.
- Eta zuek proposamenak eta jolasak ere ekarri.

Animatu zaitetze parte hartzera eta ondo pasatzera!

Koro eta Maribel

JAKIN BEHARREKOAK

Industriak uretara isurtzen dituen kutsatzaileak murriztea da EHuko Zientzia eta Teknologia Fakultateko ikertzaile taldearen helburua. Hondakin organiko gehienak biodegradagarriak dira baina plastiko, koloratzaile eta detergenteak ezin dira berez degradatu, ura baliabide bezala erabiltzea eragozten duelarik. Energia eta Ingurumenaren Injeneritza Kimikoko taldeak uretara isurtzen diren sustantziak ezabatzeko "oxidazio aurreratua" deritzon prozesua darabilte konposatu kimikoak oxidatzeko. Ozonoa eta peroxidoa dira oxidatzaileak. Molekula "garbiak" dira, kloroa eta horrelako beste batzuk ez bezala, oxidazio funtzioa amaitu ondoren desagertu egiten direlako.

Bisoi europarraren bi kume jaio dira Salburuan. Desagertzeko arriskuan dagoen haragijale honen bi kume jaio dira Gasteiz Salburua hezegunean. 'Fundacion Biodiversidad', Gasteizko udala eta Foru Aldundiaren arteko proiektuaren barruan. Udaberriaren berreskuratzeko, umedun zeuden bi eme askatu zituzten. Pont de Suert (Lleida) zentro espezializatuan hazitako emea eta kumeak Salburuan moldatzea da helburua. Jarraipena egingo zaielarik, hezegunera moldatzeko proiektuan. Nafarroan, 2006 eta 2007 urtean ere berreskuratzeko lanak egin dira. Gaur egun, populazio handiena duen Europako lurraldea Nafarroa da, 330 bisoiekin.

Denetik (XIII)

Maizpide
euskaltegia

Zorioneko zorionak!

Eskolaren eraginez edo, auskalo, haurren artean eta, ondorioz, baita etxeko helduen artean ere, oso normala da ondorengo bezalakoak hitzetik hortzera esatea eta entzutea:

✗ *Gaur Amaiurren zorionak dira (oker).*

Eta ez da euskaraz ideia hori adierazteko modu txukunagorik ez dugulako izango. Ondorengo zerrendari erreparatu besterik ez dago hamaika aukera dugula konturatzeko:

- ✓ *Gaur Amaiurren urteak dira (zuzen).*
- ✓ *Gaur gure Amaiurrek zazpi urte egin ditu (zuzen).*
- ✓ *Gaur urteak bete ditu Amaiurrek (zuzen).*
- ✓ *Gaur Amaiurren urtebetetzea da (zuzen).*
- ✓ *Gaur Amaiurren urtemuga da (zuzen).*

Aurrerantzean, beraz, irratira telefonoz hots egiten dugunean, ea **Gaur balakoren zorionak dira** esan edota entzun ordez, **Gaur balakok urteak egin ditu eta zoriondu egin nabi dut (zorionak eman nabi dizkiot)** edo antzekoak esan edota entzuten ditugun!

Lehengoan
goraintziak bidali zenizkidan...
eta gaur zure urtebetetzea
denez, nik neuk eman nahi
dizut eskura lore polit hau.
Urte askotarako,
pittiki!



Aratz eta Saioa maiteminduta...

Beste egunean?

Zeinek ez du izenburuko trakeskeria egunen batean entzun? Inguruko baserrietan eta gure aitona-amonen ahotan santa sekula ez, baina... hainbat gaztetxoren (eta euskaldun berriren) ahotan? Makina bat aldiz, tamalez!

✗ *Beste egunean Ordiziako azokan ikusi zintudan (oker).*

✗ *Beste egunean Zegamako jaietara joan ginen (oker).*

Erabil ditzagun betiko forma txukunak, aizue, gure euskararen onerako izango da eta!

- ✓ *Aurrekoan Ordiziako azokan ikusi zintudan (zuzen).*
- ✓ *Lehengoan Ordiziako azokan ikusi zintudan (zuzen).*
- ✓ *Aurreko batean Ordiziako azokan ikusi zintudan (zuzen).*
- ✓ *Joan den egunean Ordiziako azokan ikusi zintudan (zuzen).*

Etorbizuna adierazteko ere ez da egokia:

✗ *Beste egunean joango gara Ordiziako azokara (oker).*

✓ *Beste egun batean joango gara Ordiziako azokara (zuzen).*

Pertsonalki?

Gaztelaniazko 'personalizar' eta 'personalmente' modu nahiko traketsean erabiltzen ditugu askotan euskaraz!

✗ **Harreman pertsonalizatuak eskaintzen ditugu enpresa bonetan (oker).*

✗ **Lan hauek nik pertsonalki egingo ditut (oker).*

Goiko forma itsusi horiek alde batera uztea ez da hain zaila:

- ✓ *Banan-banako harremanak eskaintzen ditugu enpresa bonetan (zuzen).*
- ✓ *Nik neuk egingo ditut lan hauek (zuzen).*
- ✓ *Neronek egingo ditut lan hauek (zuzen).*
- ✓ *Ni neu arduratuko naiz lan hauek egiteaz (zuzen).*

Zuzendu, behar izanez gero...

1. Pertsonalki joan nintzen epailearengana, aspalditxotik bainuen berarekin egoteko gogo.
2. Beste egunean Che Guevarari buruzko pelikula ikustera joan ginen.
3. Gaur izeba Maritxuren zorionak dira eta "Kupela" abestia eskaini nahi diot.
4. Hori beste egun batean egingo diagu, Xinforo!

OHARRA: lehenengoan, *Ni neu* (edo *neroni*) *joan nintzen* behar du; bigarrenean, *Aurrekoan*, *lehengoan...* esan beharko genuke); hirugarrengoa, *Izeba Maritxuren urtebetetzea* edo *urtemuga da*; laugarrena zuzena da.

TOLDOS OLANAK
AGUSTINI
Jose Agustin Jauregi

Tel. eta Faxe: 943 886 558
Poltsikoko tel.: 616 698 288

Zubi-Erreka Industrialdea, 42
LAZKAO

toldosagustin.com
auxkin@toldosagustin.euskalnet.net

ZUBARA
Eraikuntzak s.l.

Promozioak, Eraikuntzak, 943 65 34 93 - 649 46 32 89
Erreformak... ABALTZISKETA

Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluaren kanpaina:

‘Euskaraz Bai’:

Euskara ikasi eta erabiltzearen aldeko konpromisoa

Beasainen eta Ordizian ‘Euskaraz Bai’ asteak ospatuko dituzte urrian

Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak 10 urte bete ditu eta urteurrenarekin batera, ‘Euskaraz Bai’ kanpaina jarri du abian.

Duela hamar urte euskarari bai esatera etorri zen Kontseilua, ‘Bai Euskarari’ aldarrikapenarekin. Hamar urte beranduago, ‘Euskaraz Bai’ esanez datorkigu. Euskara babesteko aldekotasunetik haratago euskara ikasi eta erabili egin behar dela dio Kontseiluak, eta horretarako proposatu dute lelo berria. Honela, hurrengo urteei begira euskararen normalizazio prozesua azkartzeko ahalegina egingo.

Ziklo berri baten hasie-

ran gaudela dio Kontseiluak. Euskararen aldeko konpromiso maila handiagoa izan behar du garai berriak Kontseiluaren hitzetan, “orain arteko egitasmo eta tresna juridiko eta administratiboetatik ez diotelako euskarari etorkizuna ziurtatu. Gaur arteko erritmoekin ez da helbururik lortuko”.

Euskaraz bizi

Euskararen aldeko jarrera zabala den arren, euskaraz bizitzeko eskubidea bermaturik ez dagoela dio Euskararen Gizarte Erakundeak. Egoera irauli, eta euskararen berreskurapen prozesua azkartzeko, euskalgintzan diharduten eragileek

elkarlanean jardutea eskatu du Kontseiluak.

Elkarlan horren adibideak baditugu Goierriin, ‘Euskaraz Bai’ ekimenarekin bat egin baitute Goierriko hainbat herririk. Lazkao izan zen lehena. Urrian, beste bi herri izango dira ‘Euskaraz Bai’ aldarrikatuko dutenak: Beasain eta Ordizia. Bi herri horietako hainbat gizarte eragile elkartu eta astebeteko egitaraua prestatu dute. Hurrengo orrietan dituzue egitarauak.

Era berean, etorkizunera begira Kontseiluak ildo jakin batzuk jarraituko ditu. Hala nola, euskararen eza-gutza eta erabilera zabaltzeko aukera berriak ahalik eta

eperik laburren lortzeko ahalegina egingo duela dio Kontseiluak-ek. Horretaz gainera, euskara lehentasunezko hizkuntza izatea lortu behar dela dio, “horrela ziurta baitaiteke euskaldun eta biztanle guztien hizkuntza eskubideak bermatuta izatea”.

Hori guztia egiteko lan politiko eta instituzionala eta lan soziala bideratzea eta biak norabide berean jartzea ezinbestekoa da Kontseiluaren esanetan. “Guztiok norabide berean lan egitea ezinbestekoa da, guztion arteko lankidetzak ziurta baitezake euskararen geroa eta Euskal Herri euskalduna”.

ARANDIA GARAJEA



LADA **SSANGYONG**

Autoen konponketa

N-1, z/g lurre Auzoa
OLABERRIA
☎ 943 88 09 47

LOINAZARGI

Jose Lasa, 8-10 - LAZKAO
Tel.: 943 164 846

627 505 687 (instalakuntzak) - 670 471 106 (mantenimendua)



- Elektrizitate gaiak
- Argiteria
- Etxeetarako hornikuntzak
- Mantenimendua
- Telekomunikabideak



SILVIA MIRASCASAYAS
ODONTOLOGOA
KOL. Zka: 649 RPS: 223/07



TEL./FAX: 943 88 92 87
SAN INAZIO KALEA, 2
20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)

Euskaraz Bai asteak Be

Beasain, urriaren 3tik 12ra

Urriak 3, ostirala:

18:30etik aurrera, Koskola txarangak Kale Nagusia eta Bideluze plazaren inguruak alaituko ditu.

19:00etan: 'Euskaraz Bai' erakusketaren inaugurazioa, Usurbe Erakusketa Aretoa. Erakusketaren irekiera ofiziala eta Udalak eskainitako luncha. Bertan bildutako jendearen atxikimenduak Euskaraz Bai adierazpenari.

22:30ean: Udazkeneko bertso-jaialdia Usurbe antzokian. Bertsolariak: Sustrai Colina, Maialen Lujanbio, Aitor Sarriegi, Igor Elortza, Ainhoa Mujika eta Unai Iturriaga.

Urriak 4, larunbata:

18:00etan: Pilota-partidak Antzizar kiroldegian, (munduko txapelketan aritutako neskek erraketaz eta Frontis enpresako enpartida binaka).

Urriak 6, astelehena:

17:30etik aurrera, saskibaloijokoak ikasleentzat La Salle ikastetxeko jokalekuan (euria eginez gero Antzizar kiroldegian) BKL-k antolatuta.

Urriak 8, asteazkena:

19:00etan: Hitzaldia Udaletxeko Batzar Aretoa. Gaia: Euskararen Behatokia, Hizlaria: Paul Bilbao.

Urriak 10, ostirala:

22:15ean: Ken Zazpi taldearen kantaldia Usurbe antzokian. (Sarrerak aurreko egunetan egongo dira salgai leihatilari).

Urriak 11, larubata:

17:00etan: Ume-jolasak Gernika pasealekuko frontoi txikian (euria eginez gero plazapean).

19:00etatik aurrera, triki-erronda tabernetan zehar, euskal kantuak kantatuz. Ekitaldia Musika Eskolako trikitilariak eta kantariak gidatuko dute. Ibilbidea: Kale Nagusia, J. M. Iturriotz kalea, Bideluze plaza, Zaldizurreta kalea eta Joan Iturralde kalea eta plaza.

Urriak 12, igandea:

14:00etan: Herri-bazkaria plazapean. (Txartelak, Beasaingo Antzizar, Arrano eta Basakana tabernetan salgai. Prezioa: Helduentzat: 15 euro; 12 urtetik beherako haurrentzat: 5 euro)

17:00etan: Astearen amaiera-ekitaldia, herri-kirolak eta dantzak Bideluze plazan.

Asteburuan:

Beasain K. E.ko taldeek Igartzako futbol-zelaian jokatuko dituzten partidetan, jokalaria 'uskaraz Bai' pankartarekin aterako dira.

Antolatzaileak: Koskola txaranga, Aurtzaka eta Ostadar dantza-taldeak, Arrano Kultur Elkarte, Arrano Beltza herri-kirol taldea, BKL: Saskibaloia eta Eskubaloia taldeak, Loinatz Musika Eskola, Beasain K. E., Andramendi Beasaingo Ikastola, AEK Goiztiri Euskaltegia, Berritsu eta Txelotxe ludotekak, Gaztelekua eta hainbat euskaltzale.

Laguntzaileak: Beasaingo Udala (Kultura eta Euskara-batzordeak eta zerbitzuak), Herriko hainbat Elkarte, La Salle-San Jose ikastetxea eta Gipuzkoa-Donostia Kutxa.

Euskaraz bai

Euskara Euskal Herriaren berezko hizkuntza da eta bertan izan dezakeen garapenaren baitan bakarrik ziurta daiteke bere biziraupena. Euskarak etorkizuna behar duelako, iraungo duen hizkuntza izatea nahi dugulako eta euskal herritar guztien hizkuntza izatea nahi dugulako, ezinbestekoa da euskararen garapena ziurtatzea.

Zorionez, nahiz eta euskal jendartearen osoki euskaraz bizitzeko aukerarik ez egon, gaur egun, neurri handi batean euskaraz bizi den jendarte zabala dago. Euskalgintza bilgune da euskaraz bizi den jendarte horrentzat. Hortaz, euskaraz bizitzea da gure aukera. Aukera hori hartu dugunontzat euskaraz bizi ahal izateko baldintzak sortu nahi ditugu eta horretarako ari gara lanean euskalgintzan. Horregatik ere hizkuntzarentzat esparruak garatu eta zabaldu nahi ditugu; geure bizitza euskaraz normaltasunez egin ahal izateko.

XXI. mendearen hasieran euskarak bizi duen egoeraren aurrean, Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluko

Batzar Nagusiak oinarritzko irakurketa hau egin du, euskararen egungo egoeraz:

- Egindako lanari esker euskal herritarren euskararen aldeko jarrerak azken hamarkadetan bilakaera baikorra izan duela ukalezina da. Gehiengo zabalaren jarrera euskararen aldekoa da, euskararen zabalkundea eta normalizazioa lortzearen aldekoa. Baina euskararen garapena nahi baino mantsoago ari da gertatzen.
- Euskal Herriko biztanleen laurdena euskalduna da. Azken hamarkadetan egindako ahaleginak euskaldunen kopurua handitzea ekarri badu ere, handitze hori ez da izan euskararen normalizazioa bermatzeko adinakoa.
- Erabileran ere hazkundea gertatu den arren, egoera normalizatuak izango lukeen erabilera mailaren azpitik gaurde oraindik.
- Euskaldunok euskaraz bizitzeko dugun eskubidea ez dago bermatuta, eta nabarmenak dira egunero sortzen diren ezintasunak. Euskal Herriko hainbat eremutan, euskaraz bizitzeko aukera dagoenean, euskaldunak ahalegin gehigarria egin behar du hori lortzeko, ohiko funtzionamendua, lehenetsitakoa, erdaraz garatzen delako.

Beasainen eta Ordizian

Ordizia, urriaren 20tik 26ra

Egutegia oraindik erabat zehazteko badago ere, hona hemen aurrerapen bat.

Urriak 20, astelehena:

Arratsaldean: 'Euskaraz Bai' erakusketaren inaugurazioa. Bertsolariak eta mokadutxoak izango dira. Jarraian, Urbizu-Kontseiluko ordezkaria den Zigor Etxaburuaren hitzaldia. 'Euskaraz Bai' adierazpenaren atxikimenduak jasoko dira. Aste osoan egongo da erakusketa ikusgai, Barrena Kultur Etxeko Batzar aretoan.

Urriak 21, asteartea:

Goizean: Merkataritza kanpainaren barruan, giza katea. Kontsumitzaileen hizkuntza eskubideetan oinarritutako ekintza.

Arratsaldean: Merkataritza kanpainaren barruan, giza katea. Kontsumitzaileen hizkuntza eskubideetan oinarritutako ekintza. Jarraian, erraldoiak eta buruhandiak.

Urriak 22, asteazkena:

Goizean: 'Dendaz dena, euskara gozo gozo' standa jarriko da azokan. Pastelak banatuko dira.

Arratsaldean: Arrate Leunda ipuin kontalaria.

Arratsaldean: 'Euskaraz Bai' adierazpenaren atxikimenduak jasoko dira.

Urriak 23, osteguna:

Arratsaldean: Musika Eskolako emanaldia.

Urriak 24, ostirala:

20:00etan: Kantu jira, Kuxkuxtu txarangakoekin, Plaza Nagusitik hasita.



Arratsaldean. 'Euskaraz Bai' adierazpenaren atxikimenduak jasoko dira.

21:00etan: Kantu afaria, Kuxkuxtu txarangakoekin, Plaza Nagusian. Afalondoren, herriko taldeen kontzertua (euskal kantuen bertsoak).

Urriak 25, larunbata:

Partiduetan 'Euskaraz Bai' adierazpenaren pankartekin eta elastikoekin aterako dira taldeak.

Arratsaldean: Sukaldaritza ikastaroa (Goierrri Kolore-ren barruan).

Burrunbazale txaranga.

Urriak 26, igandea:

Partiduetan 'Euskaraz Bai' adierazpenaren pankartekin eta elastikoekin aterako dira taldeak.

Arratsaldean: Jakintza eta Urdaneta dantza taldeen emanaldia; eta abesbatzaren emanaldia.

- Abagune honetan, euskalgintzak elkarlan-jarduera aberasgarria eraiki du. Elkarlan-giro horren emaitza oparoa da euskarari emandako bultzada, ehunka gizarte-eragileren ekarpena eta instituzioengan lortutako eragite-lana.

Aurreratutakoa kontuan izan eta normalizaziora iristeko bidea falta dela gogoan hartuta, oinarritzko ildo hauek jarraituko ditugu etorkizunera begira:

1. Euskararen berreskurapen-prozesua azkartzea ezinbestekoa da. Hau da, egun Euskal Herrian euskara ez dakitenek ikastea, eta, bere erabilera esparru eta eremu berrietan handitzea, ahalik eta eperik laburrenean. Ezagutza eta erabilera zabaltzeko aukera berriak sortzen jarraitu behar dugu.
2. Funtzio sozial guztiak euskaraz garatzeko aukera lehenbailehen lortzea ezinbestekoa da, horrela lor baitaiteke euskararen normalizazioan urrats benetakoak egitea.
3. Euskara lehentasuneko hizkuntza izatea lortu behar dugu, horrela ziurta baitaiteke euskaldunen eta biztanle guztien hizkuntza eskubideak bermatuta izatea.
4. Hori guztia egiteko lan politiko-instituzionala eta lan so-

ziala bideratu behar dira, biak ere norabide berean. Erakunde instituzionalak, eragile politikoez, ekonomikoez eta sozialez, norbanakoez eta euskalgintzak norabide berean lan egitea ezinbestekoa da, guztion arteko lan-kidetzak ziurta baitezake euskararen geroa eta Euskal Herri euskalduna.

Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseilua osatzen dugun eragileok euskararen eremu osoan euskaraz normaltasunez

bizitzeko ari gara lanean. Etorkizunerako, euskalgintzan ari garen erakunde eta lagunok lanerako ilusioa eta grina dugula berretsi nahi dugu. Ahalegin horretan batera jarduteko gonbita luzatzen diegu jendarte-eragileei, erakundeei, eta gizarteari oro har.

Amaitzeko, Kontseiluak 10 urte hauetan euskara ikasi, erabili, zabaldu eta horren aldeko hautua egin duten jendarte-eragile guztiei eta pertsona guztiei zorionak eman nahi dizkie.

Adierazpenarekin bat egiteko: www.kontseilua.org



*'Ez dok amairu'-ren
partaide izan ziren
zaldibiarrek*

Lagunak musika taldearekin kantuan

Gaztetako kontuak berriro ditugu Mari Paz Iruinekin eta Maria Axun Mendizabalekin. 22-23 urte zituztela, Pakita Mendizabalekin eta Maria Dolores Iruinekin batera, Lagunak musika taldea sortu zuten. Pakitak ezin izan

zuen elkarrizketara etorri baina zaldibiarrek ederki kontatu dizkigute 'Ez dok amairu'-ren parte izan zen Lagunak taldearen istorioak. Oraindik ere kantuan ederki egiten dutela erakutsi digutela. Kantu eta guzti egin dugu elkarrizketa.

SOLOZABAL
AUTO-ESKOLA

Mota guzietako
gida-baimenak

Aita Urdaneta

ORDIZIA

☎ 943 88 72 76



ondoeta

GARAJE INDUSTRIA ETA FAMILIARTEKO
ETXEBIZITZETARAKO ATE METALIKOETAN
ESPEZIALDUA, ESKUZKOAK ETA AUTOMATIKOAK

E-mail: ondoeta@ondoeta.com

www.ondoeta.com

☎ 943 88 31 02 - 943 88 74 51 Faxa: 943 88 08 72

201 Industrialdea, 18. pabilioia OLABERRIA





Lagunak Musika Taldea: Maria Axun Mendizabal, Mari Paz Iruin, Pakita Mendizabal eta Maria Dolores Iruin.

‘Ez dok amairu’, Euskal Herriko artista-talde abangoardista (1965-1972) izan zen. Gerra ondoko folklorismoari aurre eginez, adierazpen artistiko berriak sortzea zuten helburu; frankismoak eragindako problematika azaltzen zuen euskal musika eta abesti berriak lantze-ari ekin zion batik bat. Bakarkako abeslariak, taldeak, musika herrikoia, eta abar egin zuten. Euskal musikaren aintzindaritzat Michel Labegeri hartu izan da. Mikel Laboa, Benito Lertxundi, Xabier Lete, Artze anaiak, Lurdes Iriondo eta abar izan ziren bertako partaideak. Goierrin ere izan ziren beraien aletxoak jarri zuten abeslariak: Ordiziako Juantxo Mingo eta Zaldibiako Lagunak musika taldea.

Txikitako lau lagunek sortu zuten Lagunak musika taldea: Mari Paz Iruinek, Maria Dolores Iruinek, Pakita Mendizabalek eta Maria Axun Mendizabalek. Dena den, Maria Doloresek laster utzi zuen taldea. 1965. urtean osatuko zuten taldea, le-

henengo kontzertua, 1966ko jorrailaren 12an eman baitzuten Ordizian. Halaxe dio, Maria Axun Mendizabalek sobre batean sartuta ekarri duen kartelak. Argazkiak, egunkarietan ateratako artikulua, kartelak... denetik ditu ondo gordeta Maria Axunek. Lagunak taldearen oroitzenak oso bizi dituzte oraindik ere, baita hainbat eta hainbat kantu ere. Abesti bat baino gehiago abestu dizkigute elkarriketak iraun duen bitartean.

Noiztik eta nolatan hasi zineten kantuan?

Mari Paz: Beti kantatzen ibiltzen ginen.

Mari Axun: Mendira ere beti gitarra hartuta joaten ginen.

Mari Paz: Igandetan, Tolosatik bueltan, autobusean, kantari etortzen ginen. Gu beti kantatzen ibiltzen ginen. Txiki-txikitako lagunak ginen lauok eta asko gustatzen zitzaigun kantatzea.

Maria Axun: Erraztasun handia geneukan ahotsak ateratzeko. Bat kantatzen hasten zenean, bestea bigarren ahotsarekin hasten zen...

Zein abesti mota abesten zenuten?

Mari Paz: Garaiko abestiak abesten genituen, irratian entzuten genituenak. Frantsesez asko. Euskarazko betiko kantu zaharrak ere bai, baina irratian entzuten genituenak.

Gitarra lagun zenutela abesten zenuten. Taldea-

Garaiko abestiak abesten genituen, irratian entzuten genituenak. Frantsesez asko.

Herritxo bat

Parte hartu zuten kantaldi horietako bat Seguran izan zen eta Alemaniatik ekarritako grabadore handi batean grabatu zuten. Grabazio hori CD batera pasa da eta kalitatea hobetzeko lanak egin dira, baina, soinu kalitatea ezin da egungo grabaziokoe-kin alderatu.

Grabazio honetan, Lagunak taldeak eskainitako kantaz gain, Xabier Lete, Lurdes Iriondo, Benito Lertxundi eta Juantxo Mingo abeslariak eskainitako kantak ere entzun daitezke. Kantaldiaren urtea zein den ez garbi ez dago, baina 1966. inguruan izan zela uste da.

Lagunak taldeak Zaldibia herriari buruz kanta bat egin zuen. ‘Herritxo bat’ da izenburua:

Herritxo txiki bat txindoki babesean hantxe bizi gura poz-pozik gure artean lara, lara, la....

Nahiz txikia izan gure txoko maitea ez nuke salduko urre gutzin trukean lara, lara, la...

Amorruin ugari baditu ur garbian baita txori pranko goiko kanpantorean lara, lara, la...

Hain mendi politak ditu aldamentean nahi badezu ikusi guazen nahi dezunean lara, lara, la...

Eta nahi badezu mondeju txuriak jan

(www.goierrikobitza.info web gunean entzun liteke abestia)



ren argazkian, bi gitarra ikusten ditugu.

Maria Axun: Ni Irunen hasi nintzen lanean. Lankide bat, gitarrarekin hasi zen lanera joaten. Galdetu nion gitarrarekin zer egiten zuen eta esan zidan gero gitarra klaseak ematen zituela. Nola jotzen zuen erakusteko esan nion. Garai hartako modako kantu frantses bat, (*oraindik ere ondo gogoan dute, kantari basi dira biak*). Kantu hura ikasiko genuen lehenengo. Ni, lilur-ratuta, aho zabalik gelditu nintzen. Erakusteko esan nion. Akorde batzuk erakutsi zizkidan eta primeran. Ni entusiasmata. Gero Biloren hasi nintzenez eta hemen norbaitek ere bazuen gitarra bat, eta harek utziko zidala etxera eramateko eta probatzeko. Eraman eta funtzionatu egiten zuen akorde haiekin. Gitarra erosi eta hor hasi nintzen. Kantak gitarrarekin lagunduz oso polita gelditzen zen. Maria Doloresek ere erosi zuen eta bi gitarrekin kantatzen genuen.

Mari Paz: Toki guztitara gitarrarekin joaten ginen. Jaietan Tolosara joaten ginen, autobusean. Atzeko aldean jartzen ginen eta bueltakoan beti kantari.

‘Ez dok amairu’ mugimendurekin noiz eta nola jarri zineten harremanetan?

Mari Paz: Behin Zaldibian kantatu genuen eta On Salbador Garmendia herriko apaizak entzun gintuen eta ikaragarri gustatu zitzaion. Zerbait egin behar genuela eta hark norbaitekin hitz egingo zuela esan zigun... Orduantxe ‘Ez dok Amairu’ formatzen ari zen, bilerak egiten, artean hasi gabe zegoen, izenik ere jarri gabe. On Salbadorrek haiekin hitz egin zuen eta gu ere bilera haietara joan ginen, kantutan hasteko jendea elkartzen ari zirela... Eta hala joan ginen.

Maria Axun: Gitarrarik ga-

“EZ DOK AMAIRU”
EUSKAL TALDEA
Ordizi'ko Etxezarreta Antzokian
Jorrailla'ren 12'an - Illunabarreko 8 ta erdi'tan

BENITO LERTXUNDI - Abeslaria
MARI LOURDES IRIONDO - Abeslaria
JUANTXO MINGO - Abeslaria
ARCE Anaiak - Txalaparta
“LAGUNAK” - Abes taldea
JOSE ANTONIO VILLAR - Abeslaria
JULIAN LEKUONA - Abeslaria
XABIER LETE " Olerkaria

“Pelotari” Filma

Agerketa: LUIS IRIONDO

Gráficas ARALAR - Villafranca

Egunkarietako kronika

Lasarteko euskal jaialdiaren kronika: “La simpática sorpresa del festival corrió a cargo del trío vocal femenino “Lagunak”, de Zaldivia. Esta actuación, no figuraba en el programa, porque habiendo sido solicitado su concurso, surgieron dificultades para su presencia en Lasarte, por razones de otra actuación, pero a última hora fueron superadas y el conjunto “Lagunak” se dio cita en el festival. Armonioso conjunto de bellas voces que gustó mucho al auditorio. Grandes intérpretes de las melodiosas canciones del momento, nos ofrecieron una deliciosa versión de ellas en euskera, así como una bonita canción de su composición, en homenaje a su pueblo de Zaldivia.

Consideramos al trío con aptitudes suficientes como para una consagración de artistas que pasen a incrementar el grupo de jóvenes que realizan una meritoria labor a favor de lo artístico del país”.

be joan ginen eta Benito Lertxundi, Xabier Lete... horiek dena han zeuden eta oso ondo hartu gintuzten. Gitarra utzi ziguten kantatzeko eta kantatu genuen. Eta gustatu zitzaion. Handik aurrera, bileretara gitarrarekin joan ginen.

Zer zen ‘Ez dok amairu’?

Mari Paz: Euskara, protesta pixka bat... zen ‘Ez dok amairu’-ren helburua. Gu gure kantak eginda joan ginen, txintxo, mojak bezala. Gure kantuak ez ziren protestakoak eta esaten ziguten protesta kantak kantatzeko.

Guk hala esaten genien, zoriotsu: zerekin protesta egin behar dugu ba guk? Gu ondo bizi ginen.

Maria Axun: Guk ez genuen protestatzeko ezer biltzen. Euskal kontzientzia oso sartuta zeukaten eta hori bultzatu nahi zuten. Guk artean ez geneukan kontzientziarik. Euskararena bai, baina hori bakarrik. Txori txikiak kantari, herriari omenaldia... Oso zoriontsuak ginen.

Mari Paz: Dominike kantua euskaratu genuen. (*Kantuan basi dira*). Moja batek kantatzen zuen Frantzia eta itzuli baino gehiago, euskal bertsioa egin genuen. Dominike, nike-nike/ abesten du moja batek/ gitarra batekin/ guk ere abesten dugu/ baina orain euskaraz....

Jendeak zer moduz hartu zuen ‘Ez dok amairu’?

Mari Axun: Jendeak oso gustura hartu zuen. Ez zegoen euskaraz kantatzen zuenik eta hauek oso ondo kantatzen zuten. Lurdes Iriondoren ahotsa, ahots pribilegiatua zen garai hartan. Benito Lertxundi, Mikel Laboa... pisuko jendea zen. Sorkuntza aldetik ere oso kantu ederrak egin zituzten. Jende asko joaten zen jaialdi-talara.

Kontzertu asko eskaini al zenituzten?

Mari Paz: Ordizian egin genuen estreinaldia. Kartelak jartzen duenez, 1966ko jorrraila 12an, hau da, apirilaren 17an Lasarten izan ginen. Donostian Bellas Artesen ere bai, Idiazabal eta Seguran.

Maria Axun: Seguran, Euskal Jai handi bat antolatu zuten. 1967an izango zen. Herriko plazan. Errifak saldu zituzten... izugarrizko festa izan behar zuen.

Mari Paz: Nik orduan hiltzea nahiago nuen, herriko plazan kantatzea baino. Oso erreibindikatiboa zen. Astebete lehenago, Gobernu Zibilak debekatu egin



zuen festa.

Maria Axun: Mari Pazi ez zitzaion eskenatokian kantatzea gustatzen.

Mari Paz: Oso gaizki pasatzen nuen. Lasaitu ederra hartu nuen debekatu zutenean.

Maria Axun: Ni gustura ibiltzen nintzen. Nire bizi-tzako lanbidea izango nuke gustura musika. Zoragarria izango litzateke.

Mari Paz: Niri kantatzea gustatzen zitzaidan, baina plazan ez. Orain ez litzaidake inportako.

Maria Axun: Motx-motxa izan zen. Urtebete edo bi iraun zuen Ez Dok amairuk. **Musika ikasketarik ba al zenuten?**

Maria Axun: Musikan ideiarik ez geneukan inor-txok ere baina belarriak oso onak. Errepikatuz eta memorizatuz ikasten genituen. 'Herritxo bat' autobusean asmatu genuen.

Kontzertuetan zer kantatzen zenuten gogoratzen al zarete?

Maria Axun: (*Sobretik zerrrendatxoa atera du*) Triste bizi naiz eta, Dominike, Herritxo bat...Gitarra zahartxo bat det, Bakarrik, Zergatik, Kabi alai, Hondar gainean, Kukuak kantatzen du... (*Kantuen basierak abestu dituzte*). Gaur egun umeek eta kantatzen dute Herritxo

txiki bat... Simplea da, baina polita. Zaldibian, festa bezperan, Mondejuaren etorrera egiten dute bukaeran 'Herritxo txiki bat' abesten dute.

Lau emakumezko, eskenatoki gainean kantatzen ikustea berria izango zen.

Maria Axun: Emakume bat gitarra batekin ikustea arraroa zen. Gaur egun edozeinek egin dezake baina orduan ez. Orain normala da. Zaldibiakoak ginen, baina modernitak ginen. Zaldibian jende moderna asko izan da.

Zu Maria Axun, uztailen, berriz ikusi zintugun kantuan, eskenatoki gainean, Zaldibian, Lurdes

On Xalbador Garmendiak entzun gintuen abesten eta berak jarri gintuen 'Ez dok amairu'-rekin harremanetan. Oso ondo hartu gintuzten.

"Eguneroko ogia, ogi bereziak eta pastel ezin hobekak"

K. Nagusia 35 BEASAIN
☎ 943 88 77 58

Elosegi, 14 LAZKAO
☎ 943 88 72 79

Sta. Maria, 19 ORDIZIA
☎ 943 16 00 44

GOKINDEGI GARIONTA

IÑAKI ARIN
aseguruak

943 888 702 Oriako pasealekua, 20 BEASAIN

Iriondoren omenaldiko kantaldian. Zer moduz sentitu zinen?

Maria Axun: Mari Sol Alkaiagarekin aritu nintzen, gitarra bana hartuta. Gustura aritu ginen, baina hobeto ere egin zitekeen. Hamabost egunean entseiatu genuen. Gure erara moldatu genuen.

Bestela, segitu izan al duze kantatzen?

Maria Axun: Nik gitarra nire gelan daukat eta hara joan eta astindu batzuk ematen dizkiot gitarrari. Ixil-ixilik niretzako abesten dut.

Mari Paz: Nik, Eguberrietan, elkartzen garenean gabon kantak abesten ditugu. Denok gustatzen zaigu kantatzea.

Maria Axun: Gure etxean, niri bakarrik gustatzen zait kantatzea, beraz, ez daukat inorekin konpartitzerik. Niri musika ikaragarri gustatzen zait, lehen, orain eta beti. Nik dena musikarekin erlazionatzen dut. Tristura bera ere bai, poza baldin badaukat, berdin. Nik ohitura handia daukat tarareatzeko eta askotan ez naiz kontu-

ratzen tarareatzen ari naizela. Gaur egungo aukerak egonez gero, seguru, musikatik biziko nintzatekeela. Nik kantatu edo konposatu eta besteren batek nire kantatuak abestu.

Gabon kantak aipatu dituzue. Txikitan edo gaztetan gabon kantak abesten ateratzen al zineten?

Mari Paz: Rafael hasi 'Danbolillero' zenean atera ginen eta mundial atera zen gabon kantua. Euskarara itzuli genuen eta oso ondo atera zen. Txistuarekin hasi, danborra, instrumentuak sartu... eta oso ondo atera zen.

Eta abesbatzetan abestu izan al duzue?

Mari Paz: Elizako abesbatzan abesten genuen umeak ginela. Han hasiko ginen.

Maria Axun: On Manuel Etxeberria apaizak, Zaldibiako gazte guzterie musika erakutsi zien. Mutil gazteei txistua erakutsi zien. Bi edo hiru ahotsetara kantatzeko gabon kantak ere bai. Nik uste dut zaletasuna hortik etorriko zitzaigula. Hasiera hortxe jarriko genuke.



Gitarra nire gelan daukat eta hara joan eta astindu batzuk ematen dizkiot gitarrari. Ixil-ixilik niretzako abesten dut.


MARIA ASUN MENDIZABAL.

ZAHARRA • BERRI
IGELTSERITZA ETA ERAIKUNTZA

A. Almeida
943 180 372
651 700 439
aiakoerrota@terra.es
ATAUN



Eraikuntzak
Gremioen koordinaketa
Erreforma orokorrak
Teilatuak



MUJIKA
LIBURUDENDA

Tel. / faxa: 943 88 11 94
Kale Nagusia, 19 ORDIZIA

Urriaren 12an San Martingo kiroldegiaren inguruan

Garia eta artoa izango dira, Ataungo Ohitura Zaharren II. Jaiko ardatzak

Duela bi urteko ildoari jarraituz, urriaren 12an, ospatuko dute ataundarrek, Ohitura Zaharren II. Jaia. Duela 60 bat urteko bizikera gogoratu eta ezagutzera ematea da jaiaren helburua. Atauñ San Martingo Kiroldegiaren eta eskolaren bueltan kokatuko da ikuskizuna.

Aurtengo jaia bi produkturen inguruan oinarrituko da: garia eta artoa. “Gaurko egunean, munduan gehiena ibiltzen den alea, arroza da, baina bigarrena artoa. Garia, berriz, hirugarrena”. Bi produktu hauen inguruko monografikoa egitea zergatik erabaki duten galdetu diogu: “hemen gariari 1960.eko hamarkadan egiteari utzi zitzaion. Gaurko



Lurra laiatuz hasiko dute gariaren eta artoaren bidea.

eguneko gazteek ez daukate ideiarik, izaten zenik ere. Beti pentsatu izan dugu, beti ogia zuria izan dela, nahi denean, eta orain garai ezberdinetan erretakoa izaten

da... Beti ez dela horrela izan erakutsi nahi dugu. Gu gazteak ginen garaian, etxerako adina gari izaten zuten etxeak ez ziren gehiegi izango. Errotara eramaten

zuten eta handik irina eramantzen. Okindegian, irin horrekin, ogiak hartzen joaten ziren eta urtekoa ezin osatu ibiliko ziren seguru asko. Lehena nola izan den jakitea komenigarria dela iruditu zaigu, etorkizuna pixka bat nola izango den zuzentzeko”, gaineratu du.

Garia

“Garia aspalditik ezaguna bazen ere, garia ereiten hasi zen garaia oraindik oso aspaldikoa ez du izan behar. Garai zehatzik ez da esaten. Garia erabili bai, kanpotik ekartzen omen zuten. Britainiatik, Holandatik... gure lurralde honi, gose lurra ez baina hala moduz deitzen omen zioten. Hau, leku oso aldapa-

III. Mondeju lehiaketa

Mondejuak ere izango du tartea urriaren 12an Ataun. Zehatzago esateko, mondeju beltzak. “Ataunen mondeju beltza egiteko ohitura dago. Ibili gara aztertu nahian zergatik zuria eta beltza. Baina ez dugu aztarrenik atera. Hemen zahar askok ez zekien zuria izaten zenik ere. Baina Zaldibiako mutil bat kezkatu zen eta galdeketetan ibili gara, Juan Arin Dorransororen liburuak begiratu ditugu, mila gauza adierazten ditu garai haietakoei buruz, baina mondejuari buruz ez du hitzik esaten. Odolkiari buruz bai. Hiztegiaren ere, mondeju hitzik ez dugu bilatu. Hestebeteak eta horrelako hitz batzuk bai, baina mondejurik ez. Hemen esaten aritu gara, Nafarroan egiten omen zen mondongo esaten zaion halamoduzko zerbait, mondongotik etorriko ote den mondejua. Ez dakigu. Guregana iritsi den ohitura bat izan da eta Ataunen nahiko pobreak izan gara eta artzaintzatik eta abeltzaintzatik bizi izan gara. Mondejuak hemen nahiko arrakasta izan du. Gu gazteak ginela, tabernetan mondejuak egin egiten ziren eta kanpotik jendea etortzen zen jatera. Garai hartako bizikeraren adierazpena da mondejua. Garai hartan dena aprobetxatzen zen. Ardi zaharrari paradero hori ematen zitzaion udazkenean. Esaten dutenez, ikazkinak-eta udazkenean etxera etortzen zirenean haragi jan bat egoteko irrikan egoten ziren”, argitu du Joxe Bikuñak.

Indar berezia eman nahi diote aurten mondeju lehiaketari, epaimahaikide berezia izango baitute: Juan Mari Arzak



sukaldaria. “Ama ataundarra zuen eta bere euskara hemen ikasitakoa da”, zehaztu du Bikuñak. Lehiaketan parte hartzeko aurrez izena eman behar da udaletxean.



Beste bainbat eginkizunetan ere jardungo dira ataundarrak: artilea egiten, sega pikatzen, segan...

tsua izaki eta bestetik oso hezea, ez zen egokia garia egiteko, harik eta lurra kararekin eta simaurrarekin ongarritzea lortu zuten arte”, zehaztu du Joxe Bikuñak.

Urriaren 12an Ataunen, gariaren prozesu osoa ikus- teko aukera izango da. “Ereitetik hasi eta edo talo bihurtu arteko prozesu guztia martxan jarriko dugu. Garia, Nafarroatik ekarrita daukagu eta gordeta prest daukagu jendeari prozesu guztia erakusteko. Lurra erabiltzetik, lurra erabiltzeko era desberdinak nola izan diren azalduko dugu. Hasiera batean hozpikoz arituko ziren. Gero errazago lan egiteko, laia etorri zen. Eta gero nik uste, gizakiak eman zuela pauso inportantea, bere indarretik abere indarra erabiltzen hasi zenekoa. Hemen orain dela 5 bat urte, traste zaharren era-

Egitaraua

- 10:00etan:** Meza nagusia, lehengo erara jantzita.
- 10:30ean:** Lanbide zaharren erakusketaren irekiera.
- 10:45ean:** Lurra lantzeko lan era desberdinak: Hozpikoz; Laiaz; Idiak golde txikiz eta golde handiz; ...
- 11:30ean:** Garia eta artoa lantzeko prozesuak. Garia jotzen harriari; Eultzikin; Makinakin; Gari garbitzen makinakin; Garia neurtzen; Garia gordetzen arkan; Iriña pasatzen; Ogia egiten.
- 12:30ean:** Artoa zuritzen bertso eta kontu zaharrak kontatuz; Artoa aletzen koskolakin, taloburnikin eta askaan eta tramankuluz. Taloak egiten.
- 12:40ean:** Umeen garai bateko jolasak.
- 13:00ean:** III. Ataungo Mondeju beltz lehiaketaren hasiera. Mondeju dastaketa eta bertsolariak.
- 14:30ean:** Herri bazkaria eta Juan Mari Arzaki omenaldia.
- 14:30ean:** Erakusketaren itxiera.
- 16:00etan:** Erakusketaren irekiera.
- 16:30ean:** Umeen apustuak.
- 17:30ean:** Helduen desafioa.
- 18:30ean:** Jentilen etorrera. San Martin Txikiren istorioa.
- 19:30ean:** Erakusketaren itxiera.

Egun osoan zehar ikuskizun ugari izango da: txekorra erretzen, sagardo eta gazta dastaketa, taloak, mondejuak egiten, txerrikiak, barazkiak eta fruitu lehorrak, sendabellarak, artilea lantzen, linoa lantzen, auto zaharrak, trikitalariak, bertsolariak...

kusketa egin zenean, Ataunen, erromatar garaiko golda batekin topo egin genuen. Eta ikusten denez, hori izan zen giza indarretik abereen indarrera pasatzeko erabili zuten tresna. Hurrena, golda txikia eta handia etorri ziren. Gaur egun, traktorea daukagu. Pauso horiek denak ikusiko dira, lurrean erabiliz”, azaldu du. “Gari meta batetik, garia nola jotzen ikusiko da, gero garia jotzeko makina etorri zen, eta bat ere lortu dugu. Herrian bertan ez zegoen baina ekarriko dugu. Hurrena, garia nola garbitzen zen, garia biltzeko makinarekin, nola gordetzen zen askan eta nola errotara eramaten zen. Uste dut beste tramankulu bat lortuko dugula, hemen baserri batean bada eta, gerra ondorenean, kontrabandoko garaian, errotak-eta nola itxita egon ziren, ahal zuenak ahal zue-

 **kutxa**



Orain dela 60 urteko bizikera nolakoa izan zen gertutik ikusteko aukera izango da.

na egiten zuten; eta horiek nonbaitetik lortu zuten, eskuarekin eraginda egiten zuten irina”.

Artoa

Bigarren protagonista, artoa izango da. “Lehen ere ba omen zen arto txikia esaten zitzaiona, baina hain txikia omen zen, abereentzako ibiltzen zela. Hemen soluzio handikoa izan omen zen artoa. XVII. mendean Amerikatik ekarri omen zuten Gonzalo Berkaiztegi hernaniarrak eta buru handikoa izanik, hemengo goseari erantzun ona eman omen zion”, azpimarratu du.

Era honetan, artoaren prozesua ere ikusteko eta ezagutzeko aukera ere izango da. “Gurdikada bat arto,

ondoan haurrak, helduak eta abar, arto zuritzen arituko dira. Eta bakarren bat, kontu zaharrak esaten, bertsoa botatzen... lehen egiten zen erara. Inguruan, koskolarekin artoa aletzen ere arituko dira. Mazoarekin eta beste tramankulu baten bitartez. Azkenean, errotan bukatuko luke. Hemendik aurrera, ogiaren prozesua hasiko litzateke. Ore mahaian nola pasatzen zen, ore nola egiten zuten, orrantza nola nahasten zioten, nola harrotzen edukitzen zuten, arrautza gorringoarekin igurtzi, forma eman eta labean sartzen zuten. Labean ogi-artoa edo artoa egingo dute. Ogia tipoko ore bat izaten zen, erreta, horrekin zopak eginda, esnetan irakiten eduki

eta oso sosten handiko janaria izaten zen. Hori gosalduz gero, goizean ez zen goserik izaten”.

Oraindik ere hainbesteko estimazioa duten artiriarekin egiten diren taloak ere izango dira Ataunen. “Ataungo Talogileak taloak egiten arituko dira. Egun horretan, erraztasuna eman go diote jendeari, bi eurotan salduko baitituzte”.

Autoak herri sarreran

Kotxea uzteko, Zubikoetako gasolindegia inguruan aparkatzeko gomen datzen dute antolatzaileek. Auto zaharren batzuk ibiliko dira jendea eramanean. Agauntza errekararen ertzetik dagoen paseoa ere aukeran dago.

San Martin txiki

(...) “Folklore zaharrak erakusten digunez, euskal jentilek gari pila handiak jasotzen omen zituzten gure mendietan. Kristauek, ordea, ez zeukaten labore honen berririk; eta artatxikiaz baliatu behar irina egiteko eta beste. Baina halako batean San Martin txikik zer asmatuko?, eta bota zakar batzuk oinetan zituelarik, Ataungo Muskizko kobara jo omen zen jentilak ikustera edo. Eta gari pilan sartu belauetaraino eta botinak gariz beteta, basajaunei ostu egin omen zien gari hazia. Ez alperrik! Ez bait zekiten kristauek gari hazia noiz erein zitekeenik ere. Dena den, San Martin txiki zelatan zegoelarik, Basajauna algaraz kantuan ari zela sumatu bide zuen:

Ja, jaaaai! Baleekia artuko likenea:

orr' irtete, arto eitte;

orr' erorte, gari eitte;

ta San Lorentzoota arbi eitte.

Eta ordutik zabaldu omen zen garia Euskal Herri osoan. Eta artatxikiak eta ezkurrak gauduen bazka bilatu ziren geroztik”. (...)

Julian Alusitza 'Aztiri'-ren 'Euskal baserriaren inguruan' liburutik



943 88 92 31

euskara Bizī,

euskaraz Bizī!

lazkao@maizpide.com

08-09
kurtsoa

C-1 maila on-line.
Autoikaskuntza.

Larunbatetan
Alfabetatze
eta EGA
ikastaroak.

Ordukako ikastaroak.
Euskara-planak
enpresa eta
erakundeentzat.

Barnetegian
hilabeteko ikastaroak.
Familia
euskaldunetan
egoteko aukera.




Prudencio Oiarbide beasaindar estatubatuarra

Psikologoa eta urtero etortzen da San Ferminetara

Beasaingo Zunzunegi baserriko Prudencio Oiarbide Amerikako Estatu Batuetan bizi da duela 38 urtetik. Urtero itzultzen da jaioterrira, San Ferminetan normalean, baina aurten, beranduxeago etorri bada ere, aurten ere ez du butsik egin.

Duela 38 urte, Goierriko apaiz talde bat, Amerikako Estatu Batuetara joan zen. Prudencio Oiarbiderekin batera, Beasaingo Odriozola, Ataungo Barandiaran eta Aramako Nazabal ere joan ziren. “Erdaraz zekiten apaizak behar zirelako joan ginen. New Yorkera joan nintzen lehenengo”. New Yorketik Clinveland aldera joan zen laster, bertako Unibertsitatera. “Filosofia ikasten zuten. Zuzendari orde egon nintzen. Baina hura ez zen nire bidea. Ez nengoen oso pozik unibersitarioekin. Haiek progresistak ziren eta gure Elizak, eliza berri bat egitea nahi zuten Clinven-



Chicagorekin muga egiten duen Wisconsin estatuan bizi da Prudencio Oiarbide beasaindarra, Madison inguruan. Lursail handiak daude eta patata, artoa, ilarra, tomatea, pepinoa... denetik ekoizten da. Barazkiak ontziratzekeo lantoki asko daude. Patataren hiriburua deitzen dioten herri bat ere ba dago.

landen. Gu ezezkoan geunden, alperrik dirua gastatzea zela. Greba egin genuen”, dio Oiarbidek.

Txiroenen alde

Garai hartan Elizatik atera eta kale etxera joan zen. “Garai hartan 1968ko ondorioak eta iraultzak zeuden, eta guk ere beste era batera bizi nahi genuen. Bolunta-

rio sartu nintzen, apaiz izanda. Kalera bizitzera joan nintzen, Auzo Beltza deitzen diotenera. Nahikoa borroka izan genuen bertako gotzainekin, ez zuten berekoa eta”.

Langile etorkinen eskubideen aldeko borrokan murgildu zen Wisconsin estatuan. “Batez ere Mexikotik jende asko etortzen zen

lanera, denboraldian, uzta biltzera. Tomatea, pepinoa, patata, ilarrak... asko zegoen eta ontziratzekeo lantoki asko zeuden. Etxearen azpian langileak biltzen ziren, langileen eskubideen alde borrokatzekeo. Martxak egin genituen”, gogoratu du beasaindarra. “Aldaketa sozialaren alde lana asko egin genuen”.

Langileen eskubideak bermatuta, gazteekin hasi zen lanean; “langileen semeak ziren. Etorkinen historia idazten aritu nintzen. Liburu bat atera genuen”.

Gehiengan, Elizaren oniritzirik gabe aritu zen lanean. “Ni nengoen elizan progresistak bazeuden, baina normalean ez zen ondo ikusten”, adierazi du.

Eliza utzi

1976. urtean Erromara egin zuen bidaiari, apaiz izateari uztea erabaki zuen Prudencio Oiarbidek. “Erromara joan nintzen eta ‘La Gloria y el Poder’ esaten zuten eta horrek Elizatik urrundu egin ninduen. Dena utzi eta berriz ere unibertsitatera jo-

an nintzen, Madisongo uni-
bertsitatera. 45.000 ikasle
dituen unibertsitatea da.
Onenetakoa da. Psikologia
ikasi nuen eta harrezkero
psikologia lanean aritu naiz
klinika batean”.

Bertan ezagutu zuen
gaur egun emaztea duena.
Bi alaba dituzte elkarrekin,
25 urteko Maite eta 21 urte-
ko Maia.

Guztientzako klinika

120 bat psikiatra, psikologo
eta psikoterapeuta dituen
klinika da Prudencio Oiar-
biderena. Beasaindarrak, de-
presio, antsietate eta izu
atakeetan eta fobia soziale-
tan espezializatua dago, be-
ti ere helduen mailan. Opo-
rretatik bueltan, lanorduak
gutxitzeko asmoa du 78 ur-
teko beasaindarrak. “Orain
arte 40 orduko lan astea
izan dut eta oporretatik
bueltan 20 ordutara murriz-
tuko dut astea. Gainerako
ordueta zer egin pentsatu
beharko dut orain”.

Lan berriari heltzeko as-
moa ere badauka, “Gazte-
raz hitz egiten duten hel-
duekin soilik lan egingo
dut, psikiatria, psikologia
eta terapia arloan”.

Klinika pribatua da bai-
na Gobernuaren diru lagun-
tzak ditu. Dena den, ezau-
garri berezi bat badu Oiar-
bideren klinikak: “gure kli-
nikan, dohainik egiten du-
gu lana, dirurik ez dutene-
kin, edo diru gutxi dutene-
kin”.

Gehiago zehaztu du:
“oraingo arazorik handiena,
paperik gabe daudenetan
dago. Madisonen asko dau-
de. Ostalaritzan lan egiten
dute. Baina gauzak oso
gaizto jarri dira. Paper onak
erakutsi behar dira gida-
baimena lortzeko. Baina
kotxerik gabe edo gida-bai-
menik gabe zer egin behar
duzu? Jendea ibili egiten da,
lanera joan beharra dagoe-
lako. Ondorioz, jende asko
kartzelan dago, isunak...
huskeriagatik joaten da kar-
tzelara. Horrek ondorioak

dauzka, emazteak edo hau-
rrak dauzkatelako. Gizonak
beraien herrietara bidaliko
dituzte baina emazteak eta
haurrak, aitarik gabe geldi-
tuko dira, dirurik gabe...
arazo honengatik, depresio-
ak izaten dira, antsietati ata-
keak. Jendeak kalera ere
atera nahi ez duela dago,
gaizki begiratzan dietela-
ko”.

Beraz, proiektu berri
honi indarra eman nahi dio
Oierbidek, eta beste biz-
pahiru urtean lan egiteko
asmoa dauka. “AEBetan,
nahi dugunean jubilatzen
gara”, azaldu du.

San Fermin jaien enbaxadorea

Lana bai, baina oporretara-
ko tartea ere hartzen du
Prudencio Oiarbidek. Urte-
ro egiten du bere jaiotetxe-
ra bisita. Sanferminetan
etortzen da eta Frantziako
Tourreko Pirinioetako eta-
paren bat ikustera joaten
da. Aurten atzeratu egin du
oporraldia, “alaba Alcalá de
Henaresa joan da ikastera
eta berarekin batera etorri
gara”.

San Fermin zale sutsua
da Oiarbide. “San Fermine-
i gustua hartu nien aspaldi.
24 urterekin joango nintzen
lehenengo aldiz, Madrildik.
Niretzat harrigarria izan
zen, denak ondo hartzen
dituztela”.

Amerika aldetik ere jen-
de asko etortzen da. “Oso
zabalduta dago AEBetan. Ni
neroni ere aritzen naiz San
Fermine-ri buruzko bideoak
eman eta argazkiak erakus-
ten. Esaten didate Nafarroa-
ko Gobernuak ohorezko
enbaxadore izendatu behar
ninduela”, dio Oiarbidek.

San Ferminekin batera,
Donostia ere asko ezagu-
tzen dute. Ondo jatearekin
lotzen omen dute.

Txirriinduzale amorra-
tuak dira oiarbidetarrek eta
uztailean etortzen direnean,
Frantziako Tourra ikustera
joaten dira “Pirinioetara.
Egun onak izaten dira.



AEBetako politika

Presidentea aukeratzeko hauteskundeak izango da las-
ter Amerikako Estatu Batuetan. “Gu beti Clintonen al-
dekoak izan gara. Orain ere Hillary Clintonen aldekoak
gara. Obama horrekin zalantza daukagu. Gizona ona da
eta filosofia ona dauka baina ez dakigu programak au-
rrera ateratzeko indarrak edukiko duen. Programak bul-
tatzeko jendea behar duzu eta ez gaude seguru egin-
go duenik”, dio Prudencio Oiarbidek.

Botoa emateko garaian, Oiarbidetarrek osasun arlo-
ari eta etorkinei ematen diete garrantziarik handiena.
“Guretzat gai bat, osasun arloa da. Guk lanetik mediku
asegurua daukagu baina ez du dena ordaintzen. Asko
erabiltzen baduzu balio du baina lehenengo 1.000 eu-
ro, bakoitzaren poltsikotik atera behar dira. Asegurua
ordaindu eta asko ez dut erabiltzen. Beraz, aseguru ord-
aintzen dut eta gero behar dudana nire poltsikotik ord-
aintzen dut. Beste batzuk batera ez daukate. Eta siste-
ma hori zuzendu beharra dago. Hemen eta Europan be-
zala jarri nahi dute. Denontzako aseguru unibertsala.
Aseguru etxeek indar handia daukate. Guk pentsatzen
genuen Hillaryk, nola edo hala aldatuko zuela. Obamak
ez dakit”, aitortu du.

Etorkinen gaia ere hor dago: “etorkinak legeztatzea
eskatzen dugu. 15-20 urte badaramazkizu, familia bat,
ezin da hartu eta bidali. Hori erregularizatu beharra da-
go. Hillaryk esan zuen lehenengo 90 egunetan egingo
zuela. Obamak oraindik ez du programan jarri. Gauza
asko esaten ditu baina oraindik ez du programarik
egin”.

Beraz argi dauka Prudencio Oiarbidek: Obamareki-
ko konfidantzarik ezean, “McKaineekin ez gara joango
baina bestela batera ez gara joango”.

Gerra

Irakeko eta Afganistango gerraren gaia ere hor dago.
“Jendea aspertuta dago gerrarekin. Diru asko gastatzen
da. Bestetik, leku guztietan, espiak daude. Gu bizi ga-
ren aldean, gerraren aldekorik ez dago. Gerraren kon-
tra hitz egin zuen lehenengo senataria, Feingold izan
zen, Madisonekoa. Jendea aspertuta dago. Baina sartu
dira, eta orain ez dakite nola atera. Nolako gezurrak bo-
ta zituzten azaldu dira, baina ateratzea zaila da.

Mendian ibili, jan, ardoa edan, txirrindulariak ikusi...". Euskateleko txirrindulariak gertutik jarraitzen dituzte. "Nire emaztea Armstrongen jarraitzaile sutsua da. Nire alabak esaten du drogatuta dagoela, nahiz eta nola edo hala izkutatu. Guk txirrindularitza jarraitzen dugu, Euskalteleko kamisetak ibiltzen ditugu txirrinduan gabiltzanean. Euskaltel-Euskadi asko jarraitzen dugu".

Tourreko bidaiaren inguruan, badu bitxikeria bat Prudencio Oiarbidek. "Purruak erretzen nituen eta duela 8 urte, Tourreko etapa batera gindoazela, Lourdesen gelditu ginen. Erretzeari utziko niola esan nion, eta harrezkeroztik ez dut erre".

Euskarari eutsiz

Ama hizkuntzari ederki eusten dio Prudencio Oiarbidek. "Oporretan etortzen naizenean bakarrik hitz egiten dut euskaraz. Han Bilboko lagun bat badut baina erdalduna da. Internetaren bidez, Gara irakurtzen dut ia egunero eta hala eusten diot euskarari". Bera bizi den ingurunean, euskaldun gutxi bizi da.

Itzultzeko asmorik ba ote duen galdetu diogu. "Zaila izango da. Nik euskarari ahal dudana bezala eusten diot baina ingelesez lan egiten dut. Nik euskaraz ez dakit lanik egiten. Nik herri-



Euskal Herria

Euskal Herriko albisteak gertutik jarraitzen ditu Prudencio Oiarbidek itsasoaren beste aldetik. Interneta du horretarako tresna. Gaur egungo egoera kontuan izanda, Audiencia Nazionala eta Inkisizio Auzitegia parekatzen ditu beasaindarrak. "Audiencia Nazionala badago eta guretzat, inkisizio tribunalaren erreplika da. Orduan, erlijioa izango zen. Legez egiten da dena, indarra daukanak legea jartzen duelako. Bakarren bat kanpotarra badago, zure iritziarekin ados ez badago... erejea zara. Sutara. Hori zen inkisizioa. Salatu egin zen. Eta orain Audiencia Nazionala berdintsu dago nire iritziz. Denei beldurra sartuta. Nire ingurunean, euskaldunen historia dakien asko dago. Jende ikasi asko dago nire inguruan. Euskalduna ezaguna da, historia ere bai. Politika ez dute hainbeste segitzen. Baina nire ingurukoek esaten dutenez, hau aldatu egin behar da. Ezin da inor kartzelan sartu iritzi edo ideologia ezberdina edukitzeagatik. Horrelako gehiegi gertatzen dela uste dute. Inkisizioa bezala dela esaten dute", adierazi du Prudencio Oiarbidek.

ko euskara daukat. Gaztele-raz ere eskas nago batzutan, ikasi eta lana ingelesez egin dudalako", aitortu du. Gaztelera, ingelesa eta euskaraz gain, frantsesa eta italiara ere menperatzen ditu.

Kontrako egoera

Duela 38 urte Prudencio Oiarbidek egin zuen alderantzizko bidea egiten ari dira gaur egun hainbat eta hainbat apaiz eta moja. "Garai hartan apaiz gehiegi zegoen nonbait hemen eta han beharra aurkitu zuten, hango gotzainek eta elizak, erdaraz hitz egiten zuten apaizak behar zirela. Orain alderantziz gertatzen ari da: hemen ez dago eta kanpotik etortzen dira. A ze aldaketa!".

Aldaketa horren iritzia eman digu Prudencio Oiarbidek. "Izan ere, Elizak hemen, herriari asko utzi dio. Ni akordatzen naiz, Villaron, filosofia ikasten ari nintzela guk Patxi eta beste batzuk, eusko garra zuten, euskarazko aldizkari politiko bat ateratzen genuen, gero debekatu egin zuten. Eliza saiatzen zen. Gero ETA azaldu zen, euskal garra zeukatenei Elizak babesa ematen zien. Gutxitzen joan da babesa. Arantzazura joan eta hutsik dago. Tolosan ere berdin, Sakramentinoetan ere ez dago ezer. Elizak ez du jakin moldatzen".

 **mazda**

☎ 943 889 296
 Faxe: 943 887 952
 N-1 errep. 419 Kma
 BEASAIN

Bikar, S. A.




Zeure etxea dekoratzeko biderik laburrena

ibai ondo
 barne diseinua
 dekorazioa

Garai berrietarako
 ideia berriak

Katea 5, Antzizar auzoa
 Tel.: 943 16 40 40
 BEASAIN



www.iragarki**laburrak**.com
uztarria.iragarki**laburrak**.com
txintzarri.iragarki**laburrak**.com
otamotz.iragarki**laburrak**.com
elgoibarren.iragarki**laburrak**.com
soraluze.iragarki**laburrak**.com
bidasoamedia.iragarki**laburrak**.com

ukberri.iragarki**laburrak**.com
oarsoaldeko**hitza**.iragarki**laburrak**.com
tolosaldeko**hitza**.iragarki**laburrak**.com
11barri.iragarki**laburrak**.com
uro**la**-kostako**hitza**.iragarki**laburrak**.com
irutxulo**ko**hitza.iragarki**laburrak**.com
busturialdeko**hitza**.iragarki**laburrak**.com

milaka bisita, egunero

saltzeko
erosteko
eskaintzeko
eskatzeko
aurkitzeko

...

zure-azoka

Erregistratu zaitez
eta jarri zure iragarkia **webgunean:**

norbanakoak
doan

enpresak
leku eskusiboa

*Jarri zure
iragarkia!*

Gainera, **ostiralero** paperezko edizioa
100.000aleko zabalkundearekin.



*Jon Ander Albisu
ataundar pilotaria:*

“Antiguoko txapelketa irabazteak bidea irekitzen laguntzen du”

Jon Ander Albisu. 18 urte. Ataundarra, San Gregoriokoa. Pilotaria. Udan, Antiguoko pilota txapelketa irabazi du, pilotari gazteei, bidea irekitzen laguntzen dien txapelketa. Asegarceko atea irekita ditu dagoeneko.

Duela bi urte, hiru kirolen artean aukera egin behar izan zuen Jon Ander Albisu. Futbola eta korrika alde batera utzi eta pilotari heldu zion. Pozik dago erabakiarekin eta momentuz, gauzak ondo dihoazkio. Aurtengo udan, Donostiako Antiguon jokatzen den txapelketa irabazi du, Apeztexea bikote lagun zuela. Horixe izan du, orain arte irabazi duen txapelik garrantzitsuena. “Aurretik pare bat txapel irabazita nengoen, baina izen handirik gabekoak. Antiguokoak, beste izen bat dauka. Pilotari gazteei bidea irekitzen laguntzen dien txapelketa da. Periodikoetan-eta asko ateratzen da”, dio ataundarrak.

Goizuetako Apeztexea aurrelaria zuen bikotea. Profesionaletan dabilenaren anaia. Gustura jokatu du nafarrekin, nahiz eta aurretik berarekin inoiz jokatu gabe zegoen. “Antolatzaileek egiten dituzte bikoteak. Apeztexea ez nuen ezagutzen baina gustura aritu nintzen. Aurka arituta nengoen. Baina nik uste baino hobeto konpondu gara”.

Sukia-Bolinaga bikotea izan zuten aurkari. Alex Sukia, zaldibiarra da. Beraz, oraingoan, Goierrik segurua zuen txapela. “Erraz irabazi beharrekoa zen, baina kostata irabazi genuen. 17-11 irabazten joan ginen; eta gero 21na. Kale asko egin genuen, opari dezente. Azke-

nean, 22 eta 21 irabazi genuen”, azpimarratu du ataundarrak.

Jubenil mailako txapelketa irabazi du. Baina hemendik aurrera, senior mailan arituko da. “Irailetik aurrera, seniorra izango naiz. Gipuzkoako txapelketa jokatzen hasiko gara, eta senior mailan arituko naiz”. Beste kontu batzuk izango omen dira hemendik aurrera. “Beste maila bat dago, antzematen da. Entrenatzen zaharragoekin aritzen gara eta nabaritzen da. Pilotak ere pisuz gehiagokoak izango dira”.

Tolosako Beotibar pilotalekura joaten da entrenatzera. Batez ere, Asegarceko Aratz Mendizabalekin, Ola-



“Kirolrik arraroena ere ikusi egiten dut”

Pilotari bat:

Abel Barriola. Pilotari osoa da.

Pilotaleku bat:

Tolosako Beotibar. Gustura entrenatzen dut.

Pilotaz gain, beste kirol bat:

Edozein. Arraroena izanda ere ikusi egiten dut. Olinpiadak denak ikusi ditut, Paralinpiokoak ere ikusten ari naiz.

Eta praktikatu?

Orain pilota bakarrik. Orain dela bi-hiru urtera arte, futbola eta korrika ere bai.

Kirolaz gain, beste zaletasun bat:

Ehiza.

“Handitan” zer izan nahi duzu?

Pilotaria. Hortik ateratzen badugu ondo, bestela, moduloren bat egin eta lanera joan beharko dugu.

Janari bat:

Pasta eta arroza.

Oporretarako leku bat:

Mendia egonez gero, edozein leku.

etxearekin eta Eskuderorekin entrenatzen du. Aholkuak ere ematen dizkiete zaharragoek: “kilo gehiago hartzeko esaten didate”, aitortu du.

Asegarcerekin entrenatzen

Asegarcé pilota enpresarekin du lotura Albisuk. “Ea suerte pixka bat daukagun. Bidea zaila da. Asko gaude, dezente politak. Zortea ere behar da, lesiorik ez izatea”, aitortu du. Orain arte, es-

kuekin ondo dabil eta ez du arazorik izan.

Jon Ander Albisu 6-7 urterekin hasi zen pilotan. “Ikaztegiara joan ginen lehenengo. Partidu bat jokatzeke pilotari bat behar zutela eta deitu egin zidaten. 2-3 urte egin genituen eta gero Atauna etorri ginen. Orain arte hemen aritu naiz. Ataunen ez zegoen pilota eskolarik eta”.

Harrezkero, Ataunen atera dira pilotariak. Aurten go Herri arteko txapelketan

ere aurrean ibili dira. “Zorte pixka bat izan dugu. Orain arte seniorretan huts egiten genuen. Baina orain, kade-teek huts egiten dute. Aurrean ibiltzeko, hiru mailatan bikote politak behar dira”.

Pilotaria

Orain Beotibar izango du entrenatzeko lekua. “Aurten jende dezente elkartuko gara. Ataungo Arratibel ere joango da”.

Irailetik aurrera, Gipuz-

koako txapelketa, Udaberrikoa, El Diario Vasco... txapelketa horiek ditu ataundarrak buruan. Lesioek laguntzea eta egunetik egunera hobetzea du helburu.

Pilotatik bizitzeko esperantza badu, horixe du ametsa, baina oraindik urruti ikusten du ataundarrak. “Bigarren mailakoekin entrenatzen ari gara eta erregularragoak dira. Jo eta jo, eta ondo. Esperientzia pixka bat falta zaigu”, azpimarratu du Albisuk.

over Urraki
Bidaietan adituak

Kale Nagusia 42, behea **BEASAIN**
Tel.: 943 80 40 15 Faxa: 943 80 55 79
urraki@over.es www.over.es

ALDANONDO GARAJEA MICHELIN zerbitzu ofiziala

**Gurpil lanak,
alineazioa,
aluminiozko llantak**

**Filtroak, olioak,
engrasea**

**Frenu pastilak, tubo
eskapeak, bateriak**

Harezko txorrotadak



Errota Poligonoa IDIAZABALgo sarreran ☎ 943 18 72 57

*Ordizia***Ordizia Kantuz**

Hitzaro Euskara Elkarteak antolaturik, Ordizia Kantuz ari dira ospatzen Ordizian. Datozen 4 ostiraletan, Euskal Herriko hainbat kantari eta talde ariko dira D'elikatuz zentroan. Tartean Goierriko bi bakarlari izango dira: Saioa legorretarra eta Abarlotz zaldibiarra. Saioak folk amerikarra lantzen du eta bi disko ditu kalean: 'Particular land' eta 'Matrioska heart'. Abarlotzek, aldiz, euskal kantautore tradizionalak eskaintzen ditu. Hurrengo bikontzertuak dituzue jarraian:

Irailak 26, ostirala:

22:00etan: Kokein taldea, D'elikatuz zentroan.

Urriak 3, ostirala:

22:00etan: Saioa legorretarra eta Abarlotz zaldibiarra, D'elikatuz zentroan.

*Ataun***IV. pintura lehiaketa, kalean**

Argazkilaritzaz gain, pintura ere protagonista izango da Ataunen, urriaren 5ean. 16 urtetik gorako edozeinek parte hartu ahal izango du eta partaide bakoitzak pintura lan bat aurkeztu beharko du. Lanak, Ataunen egun berean egindakoak izan beharko dira: kalean egindakoak eta herrian oinarrizten direnak, edozein gauza gaitzat erabil daitekeelarik. Epaimahaiaren lana errezteko, lana egiteko aukeratutako tokia zehaztu beharko da.

Lanen neurria gehienez 100 x 81 cm.koa izango da, eta teknika librea izango da. Lanak egiterakoan edozein oinarri erabili ahal izango da, baina euskarri gogor batean jarri beharko da lana aurkezterakoan. Egileek lanak egiteko beharrezko dituzten tresna guztiak ekarri beharko dituzte.

Erabiliko diren euskarriak Udaletxean zigitatuko dira lehiaketa egunean, goizeko 9etatik 10etara. Euskarriak aurretik prestatuta eraman daitezke, baina ez da onartuko inolako zirrimarra, marrazki edo marra aztarnarik edukitzea. Udaletxean aurkeztu beharko dira, txartelarekin batera, 13:30tik 14:00etara eta 18:00etatik 18:30etara. Partaideak nahi izanez gero, lanari prezioa jarri ahal izango dio.

Sariak

Sariak honako hauek izango dira. Lehenengo saria: 500 euro eta oroigarria. Bigarren saria: 300 euro eta oroigarria. (Parte hartzaile bakoitzari herriko taberna batean hamaiketako egiteko txartel bat emango zaio.).

Parte hartzaileek egindako lanak azaroaren 3tik 22ra erakutsiko dira Udaletzeko ganbaran.

*Idiazabal***Ursuaranen San Migel jaiak****Irailak 26, ostirala:**

19:30ean: Jaiei hasiera emango zaie suziri eta kanpaiekin.

Ondoren, afaria zerbitzatuko da: mondejuak, gixadua eta ardi txuletak.

23:30ean: XV. 'Mus azkarra' lehiaketa.

Irailak 27, larunbata:

12:00etan: Meza.

Ondoren: Txistulariak, Mendizabal eta Zeberio bertsolariak, eta Dani OiARBIDE eta Peio Urdangarin trikitilariak.

14:00etan: Udaletxe bazkaria.

17:00etan: Joko herrikoiak oroigarri eta opariekin, haur eta helduentzat. Bukaeran, txokolate jana.

Ondoren: Bertsolarien bigarren saioa.

Iluntzean: Afaria eta trikitixa.

*Ataun***V. Argazkigintzako rallya**

Ataungo Udalak, V. argazkigintzako rallya antolatu du, urriaren 5erako. Lekua eta ibilbidea: Ataungo Udallerria. Gaiak, rallyaren egunean jakinaraziko dira. Partaideak: Lanbidez argazkilariak ez diren zaletuak. Izen-ematea: Egun berean, goizeko 9etatik 10etara Ataungo Udaletxearen aurrean. Izena emateko momentuan memoria txartelak begiratuko dira. Partaide bakoitzak 5 euro ordainduko ditu. Arloa: Argazki digitala. Txartelen jasotzea eta jaitziera: Parte hartzaile bakoitzak gehienez 25 argazki jaitsi ahal izango ditu. Parte hartzaileek memoria txartela eman aurretik, jaitsi behar dituzten argazkien aukeraketa egin beharko dute. Horrela ez bada, ez da jaitzierarik egingo. Parte hartzaileen errespetuagatik eta eraginkortasunagatik antolatzaileak gai honetan zorrotzak izango dira. Aukeratutako argazkiak ezingo dira manipulatuta eta erabiliko den formatoa JPG konprimitu gabea izango da.

Partaideek memoria txartelak 13:00tik 14:00etara edota 18:00etatik 18:30etara entregatu beharko dituzte.

Sariak eta sari banaketa

Sariak: Lehen saria: 300 euro eta oroigarria; bigarren saria: 150 euro eta oroigarria; lehen herritarrari saria: 90 euro eta oroigarria.

Sari-banaketa eta aukeratutako argazkien proiektzioa, azaroaren 29an larunbatean, eguerdiko 12:00etan Ataungo Herri Antzokian izango da.

Ataun

Ainhoa Artetaren kontzertua

Sahara herriari laguntzeko Euskal Herriko elkarteak antolatuta, Ataungo San Martingo Elizan, Ainhoa Arteta sopranoaren kontzertua izango da, arratsaldeko 7etan.

Ormaiztegi

San Migel jaia

Irailak 27, larunbata:

11:00etan: Eskalada saioa gaztetxoentzat kiroldegian.

12:00etan: Eliza ondoran toka txapelketa. Ondoren harri jaurtiketa txapelketa.

16:00etan: Herritarrentzat mus txapelketa. Bikoteko 10 euro. (izen ematea 16:30ean bukatuko da).

17:00etan: Guraso elkarteak antolatuta, haur jolasak Udaletxe ondoran. Ondoren, txokolate jana.

17:30etan: II. patata tortila txapelketa (gehienez 20 bikotek parte har dezakete).

20:00etan: Herriaren alde lan egin duenari herriko esker ona agertzeko ekitaldia. Ondoren, kupelaren irekiera.

21:00etan: Udalak eskainita odolki eta txorixo egosia, 2 euroren truke. Eserlekua, odolkia, txorixoa eta edaria lortzeko tiketak eskura daitezke tabernetan eta okindegietan ostegunera arte.

Ondoren: Herri afaria. Norberak bere afaria eraman beharko du. Udalak brasa handi bat eta parrilla txikiak jarriko ditu herritarrek erabil dezaten.



Beasain

Arana Bideluzeko jaiak

Irailak 26, ostirala:

18:00etan: Buruhandiak eta txistulariak.

19:00etan: Txokolate jana umeentzat.

20:00etan: Disko-festa.

23:30etan: Disko-festa.

Irailak 27, larunbata:

12:30etan: Baxoerdi edate herrikoa.

20:00etan: Fuskaraokea

23:30etan: Kontzertua: Atila y los Unos

Irailak 28, igandea:

12:00etan: Toka erretiratuentzat.

12:30etan: Baxoerdi edate herrikoa.

13:00etan: Luntxa Arana, Bideluze eta J. M. Iturriotz kaleetan jaio eta bizi diren erretiratuentzat.

18:30etan: Haurrentzako Herri Kirolak Saralegikin.

Ordizia

Jose txo Imaz lasterketa

Irailko azkeneko igandean, irailaren 28an, Jose txo Imaz lasterkaldia egingo da. Ordiziatik atera eta Beasain eta Lazkao zeharkatuz, berriz ere Ordiziara joango dira korrikalariak, 10 kilometroko ibilbidea osatuz. Goizeko 11etan hasiko da lasterketa.

Izena emateko epea irekita dago. Aurretik eginez gero, 10 euro ordaindu beharko dira; eta egunean bertan, 13 euro. (txindokiat@yahoo.es - 676735073 - 685755946 - 943-085088).

Ikaskide

irakaskuntza eta pedagogia

Joan Iturralde, 5 - Beasain
943 160 120 (arratsaldez)
www.ikaskide.net

2008-2009 ikasturtea

Irailean ikastaro trinkoak: mekanografia eta ikasketa teknikak

ESKOLA LAGUNTZA:

Lehen Hezkuntza, DBH,
Batxilergoa, modulua

UNIBERTSITATE MAILA:

Enpresaritza, Injeniaritza,
Kimika eta Fisika

INFORMATIKA:

Mekanografia, Word, Acces, Excel

IKASKETA TEKNIKAK

INGELERA:

Maila guztiak, PET, First Certificate,
mintza praktika



Errehabilitazioa

Masaje terapeutikoa

Kirol masajeak

Lunbalgiak eta ziatalgiak

Drenaje linfatikoa

Kinesiologia

Naiara Gómez Larrea
Kol.zkia.: 1466

Ordutegia:

astelehentik

ostiralera

9:00 - 13:00

15:00 - 20:00

Andraitz kalea, 2 ezk. ZEGAMA Tel.: 943 80 15 32



Ezkontza Gaintzan 1930ean

Argazkia Gaintzako Ibarritza baserrian 1930ean ospatu zen ezkontzan ateratakoa da. Denen izenik ez badugu ere erdian eserita ageri dira ezkonberriak eta beraien gurasoak.

Erdiko ilaran ezkerretik eskuinera: Joxe Martin Garmendia Goitia eta Katalina Jauregi Armendariz (senarraren gurasoak, Katalina izatez Zaldibiako Gaintxaits baserrikoa), Pedro Garmendia Jauregi (senarra, Ibarritza bertakoa), Simona Arza Lasa (emaztea, Itsasondoko Urkia auzoko Saletxeberri baserrikoa, Ibarritzara ezkondua), Gertrudis Lasa Garmendia eta Matias Arza Azpeitia (emaztearen gurasoak).

PSIKOLOGI KLINIKOA

Argi Jose Ramon Pato Prieto
Psikologian lizentziatua
Elkargokide zenbakia: E-2644
RPS: 420/01

AURRE ZITA ☎ 943 887 221 ☎ 610 020 041
JM Arana, 1 - 2. esk. esk. BEASAIN

Helduen, umeen, bikoteen eta sexologi tratamenduak

San Inazio, 14 BEASAIN
☎ 943 889 390

Garagartza pl., 1 ORDIZIA
☎ 943 805 327

San Franzisko, 8 TOLOSA
☎ 943 650 239

Lurrindegia eta opari gaiak

ZEGAMA OKINDEGIA
Eskuz egindako ogi naturala
Intxausti eremua, 14G-14H nabeak
☎ 943 80 10 66 ZEGAMA

SALMENTA PUNTUAK:
Beasain: Oskarbi, Osña, Natxo dietetika, Ekilore. **Ordizia:** Sabino, Muño, Osasun eta Gorosti. **Lazkao:** Lasa, Viaña eta Ainhoa dietetika. **Legorreta:** Dorronsoro. **Zegama:** Kooperatiba eta Maria Jesusen denda. **Segura:** Erosle. **Idiazabal:** Joxan harategia. **Ormaiztegi:** Iñaki Erosle. **Zumarraga:** Rueda dendak, Centro 100. **Urretxus:** Dia. **Legazpi:** Jabi harategia, Izkuntza eta Patxo.

AMEBI Sagardotegia

Erretegi bezala zabalik

- * Eguneroko menuak
- * Karta zerbitzua
- * Ospakizunak
- * Plater konbinatuak

Zubierreka, 9 ☎ 943 16 25 23 LAZKAO

Mintzalaguna izan nahi al duzu?

Beasainen
mintzalagunak
behar ditugu.
Astean ordubete

Euskara ikasten ari
direnekin eta
euskaraz hitz egin
nahi dutenekin
elkartu, kafea
hartu, paseatu...

Ondo pasa
dezakezu
euskaraz hitz
eginez



Beraz, animatu eta deitu
Euskara Zerbitzura:

943 02 80 63

mintzalaguna@beasain.net

Birziklatzeak badu **SARIA!**



Sasietak **1.000 kit ekologiko** eta
nekazalturismoko 6 egonaldi banatu
behar ditu.

ZU izan zaitezke horietako bat.

Sariduna izateko **BIRZIKLATZEN**
jarraitzea besterik ez duzu egin behar.

Gainera gure kanpainako bideoa You
Tuben ikus dezakezu. Argibideak eta
bideoa: www.sasieta.net

ZORTE ON!!



SASIETA
MANKOMUNITATEA

☎ 943 161 555 / www.sasieta.net

ACDA

ANTONIO DELGADO DISEINU ALTZARIAK
SUKALDE GUNEA

Jose Miguel Iturrioz, 16 Behea
20200 Beasain Gipuzkoa
T/F 943 027 626



Perspektiba, usaimena,
platerak, estetika, ura,
aulkiak, txipiroiak, lerroak,
hozkaillua, lorea, koloreak,
mahatsak, edalontziak,
bolumena, mantala, labea,
dastamena, geometria,
botila, tomatea, texturak,
labanak, irudia, azpizuna,
simetria, perrexila, gatza,
kazola, gozamena.

Kontzeptu eta elementuak
uztartuz sortutako guneak

DISEINUA SUKALDEAN

